

Liburuak

KRITIKA

Enararekin batera

Haur eta gazteen literatura

Xabier Etxaniz Erle

“ITSASLABARREAN, lasto eta buztinezko habia bat bizipozez bete da udaberriro bezala. Habiak bost arrautzatxoren barruak gordetzen ditu, epel eta goxo hazten. Adi! Moko txiki batek arrautza-oskola hautsi du!”.

Horrela hasten da enara ttipi eta abenturazale honen lehenengo egunak kontatzen dituen istorioa. Txita jaioberriak itsasoa ikusiko du, bere mokoan ezarritako tximeleta, paretan behera datorren muskerra... Habian dagoelarik mundu bat deskubritzen joango da enara ttipia, eta mundu ttipi horretatik mundu handira egingo du jauzi hegan hastean.

Liburuaren argumentua, beraz, horixe izango genuke, nola deskubritzen duen mundua enara txikiak, koloreak, animaliak, toki eta egoera ezberdinak, eta azkenik, janari asko dagoen leku zoragarria. Bidaiaren amaieran, enara habiara itzuliko da eta han bere bidaiaren berri emango die senideei: “Ibaiari jarraituz, gure txoritxo erraz itzuli da etxera, eta senideek pozez zoratzen hartu dute. Bere balentriak kontatu dizkie, eta janaz mukuru dagoen laku zoragarria deskribatu dienean bertara bizitzera joatea erabaki dute”.

Liburuak, baina, testu bidez baino, irudien bidez kontatzen digu istorioa. Irudi errealista eta ikusgarrien bidez Mikel Mendibilek errealitatearen ikuspegi oso ezberdin eta ederrak eskaintzen dizkigu. Hasieran bertan habia itsaslabar batean kokaturik aurkezten zaigu, eta goitik ikusita habia barruan dauden



Enara ttipia. Testua eta irudiak: Mikel Mendibil Ainzua. Denonartean, 2012.

arrautzak ikus ditzakegu, eta alboan amildegia, paretatsasoraino. Enararen bidaiaren ere antzeko zerbait gertatzen da, laku zoragarria, kolorez betea, aurki dezakegun bezala, badugu behiaren buru handia eskaintzen digun irudia; hots, enararen ikuspegitik eginiko irudia; eta horrela, narratzaileak (aurretik ikusi ahal izan dugun bezala hirugarren pertsonan) istorioaren nondik norakoa kontatzen digun bitartean guk enararekin batera egingo dugu bidaiaren, berak bezala hegan eginez, eta bere begiek ikusten dutena ikusiz.

Istoriok aparteko intrigarik edo misteriorik ez badu ere (txoritxoaren bidaiaren kronika genuke liburuaren argumentua), liburu honek merezi du gutxienez hiru arrazoi nagusigatik: alde batetik eskaintzen dituen irudiengatik, ikusgarriak eta ikuspegi aberatsekoak; beste alde batetik Mikel Mendibil plazaratzeko aukera eskaini duelako, eta lan honen ondoren beste asko egingo dituela espero dugulako; eta azkenik, Denonartean argialetxe txikiak, eta berak bezala sortzen ari diren beste batzuek, kalitatearen alde eginiko apustuagatik.



ZIO

ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure
artean
euskaraz

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia

BIZKAIA
BIZIA